

GETARIA / Liburuaren Egunean ipuin kontalaria izango da bihar

GETARIA. DV. Gaur, apirilak 23, Liburuaren Nazioarteko Eguna da, eta, hori dela eta, Udaleko Euskara Zerbitzuak ipuin emanaldia antolatu du 5urtetik 9 urte bitarteko haurrentzat. Ana Meabe ipuin kontalariak Marilurrek aitona Koxme salbatu du ipuina kontatuko du Alondegian, 17:30ean. Gabonetan ere ipuin kontalari berbera izan zen Alondegian, Marilurrek 5.722.630 ipuin dakizki ipuina kontatuz, eta, umeen artean izandako arrakasta ikusita, Euskara Zerbitzuak Marilurren beste ipuin bat kontatzera gonbidatu du.

Sari banaketa

Bihar bilduko da epaimahaia, eta asteartean emango ditu jakitera V. Literatur Lehiaketako irabazleak. Euskara batzordeburua, udaleko beste ordezkari bat, Herri Eskolako zuzendaria, Artzapeko kide bat eta Literatur Lantegiko kide batek osatzen dute epaimahaia, eta euskara teknikaria arituko da idazkari lanetan. Kategoria bakoitzean ipuin, poema eta piropo modalitateetan irabazlea zein den aukeratu beharko dute. Ez dute lan erraza izango, aurtengo edizioan inoiz baino lan gehiago aurkeztu dira eta: 137 ipuin, 54 olerki eta 25 piropo. Guztira 216 idazlan. Sari banaketa ekitaldia, berriz, asteazkenean izango da, Udaletxeko Areto Nagusian, 18:30ean.